

Cogito, ergo sum

Kalkulu eta metodo artean itto zitzaidan bihotz ttipia ez bait zen kobalentea, ez deribagarria, ez pitagorikoa, ez uniformeki azeleratua.

Zientziak ezagutzen ditu maitasunaren pisu atomikoa laztan baten bero espezifikoaren malenkoniaren konfigurazio kuantikoa malkoen pisua bihotzaren taupada.



Baina... Lauaxeta zaharrarekin doinua datorkit: «Itaundu dautsozu...».

Itaundu... irri egin eta barrua zotinka jarri dizun negarrari

Itaundu... goizeko ihintzak perlaz jositako zelaiaren maiestateari


Itaundu... maitasunak gozarazi dizun xamurtasun lizunari


Itaundu... arima zulo ilunera jautiki dizun hitz zitalari

Itaundu... lege guztietatik iheska fruitu debekatua dastatzera bultzatu zintuen arrastiriari...



OLATZ MERKADER (Zarautz) 17urte





Itaundu deutozu... baina zertarako?
Nik ez dut erantzunik nahi.

Ez dut egunsentiaren zergatia jakin nahi,
zeruan kolore-eztanda bazait;
ez dut uraren zikloa ezagutu nahi,
ttantta gezen hezetasunak araztasuna badagit;
ez dut malkoen konposaketa kimikoa behar,
negarrak agurra zolin egiten badit;
ez dut maitasunaren alkimia ikertu behar,
bihotzaren taupadatan badarabilt.

Arrazoiaren kateek
errealitateari lotu nahi diote
gizonon arima hegalaria
eta pisatu
neurtu
kalkulatu
analizatu

... eta nik irrazionaltasun ttantta bat
botatzen diot kafesneari.

Descartes, René, ate joka etengabe habil,
ni dutxan, operako sopranoa bainintzen
lirikoki —desafinatuz, noski— kantari.

Cogito et amo, ergo sum.

Hi, René Descartes, kontura hadi!